

UDAL HERRI JABARIA ATZEMATEAGATIKO TASEN ZERGA ORDENANTZA ARAUPETZAILEA. 2012. URTEA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunen Foru Arau erregulatzailearekin bat etorriz, Eranskineko Tarifetan eta Ordenantza honetan azaltzen diren araberako udal herri jabariko ondasunen erabilpen partikularra edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak ezartzen eta eskatzen ditu, Ordenantza honek ezartzen duen eran, haiek honen barne daudelarik.

2. Artikulua- Ordenantza hau udal mugarte osoan ezartzen da.

ZERGA EGITATEA

3. Artikulua- Zerga egitatea udal herri jabariaren erabilpen partikularra edo aprobetxamendu berezian datza.

SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.1- zergadun gisa, honako hauek subjektu pasiboak dira: batetik, pertsona fisiko eta juridikoak, eta, bestetik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen erakundeak, hain zuzen ere, gozatu, erabili, emakidadunak izan edo tokiko herri jabaria norbanakoaren onurarako aprobetxatzen dutenak.

2.- Espalioen bidez ibilgailuak sartzegatiko erabilpen partikularra edo aprobetxamendu bereziagatiko eta hauen eraikuntza, mantenimendua, aldarazpen edo kentzegatiko tasetan zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera hoiek sarbide diren finka eta lokalen jabeak, hauek dagozkien onuradunen gaineko kuotak jasanarazi ahal izango dutelarik.

3.- Estatua, Autonomi Elkargoak eta herri Erakundeak ez dituzte tasa hauek ordainduko: erabilpen partikularra edo zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoei datzekien aprobetxamenduetatik tasak, eta herritarren segurtanari edo nazioaren defentsari interesatzen zaizkien guztiek.

5. Artikulua- Tasak dagozkien lizentziak ematen zaienak ordaindu beharko dituzte, edo horren ezean aprobetxamenduen onuradun direnek.

SALBUESPEN ETA HOBARIAK

6. Artikulua- Salbuespenak edo beste zerga hobari batzuk ematea ezarpen-xedapen orokorretan ezartzen denari doituko zaio.

ZERGA OINARRIA

7. Artikulua- Toki herri jabariaren erabilpen partikularra edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitza da zerga oinarria, dagokion tarifak ezartzen duen eran.

KUOTA

8.- Artikulua. 1.- Zerga kuota tarifa bat ezartzetik ateratzen kopurua izango da, horretarako jarritako kopuru finkoa edo edo bi prozedurak ezartzearen ondorioz sortutako kopurua.

2.- Erabilpen partikularrak edo aprobetxamendu bereziak herri jabariaren suntsiketa edo hondaketa badakar, onuradunak ordaindu behar duen tasaren kalterik gabe, dagozkion berreraikitze edo konpontze gastuen kostu osoa ordaintzera eta zenbatekoa aurretiz uztera behartuta egongo da.

Kalteak konponezinak balira, Herri Erakundeari hondatutako ondasunen balioaren besteko kalteordaina edo suntsitutakoen zenbatekoa emango zaio.

Herri Erakundeak ezin izango du barkatu, ez osorik ez zati bat, atal honetan azaltzen den kalteordain edo itzulketarik

SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. Artikulua. 1.- Toki herri jabariaren erabilpen partikularra edo aprobetxamendu bereziagatiko tasa erabilpen pribatua edo aprobetxamendu berezia hasten denean sortuko da, zerga oinarriaren arabera, aurretiz bere zenbateko osoa edo zati bat uztea eskatu daitekalarik, edo jarduketa edo espedientea hasten duen eskaera aurkezten denean, hau ez delarik egingo ez tramitatuko dagokion ordainketa burutu arte.

2.- Tasaren berezko izaerak honen aldikako sortzapena eskatzen duenean, hau urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean izango da eta zergaldia egutegiko urte osoa izango da, erabilpen partikularra edo aprobetxamendu berezian hasiera edo uzte suposamenduetan izan ezik, orduan, zergaldia egoera horri doituko zaiolarik, kuotan dagokion lainarekin, eranskinean azaldutako eran.

3.- Subjeku pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik herri jabariaren erabilpen edo aprobetxamendu eskubidea ez balitz emango edo ez balitz aurrera eramango dagokion kopurua itzuliko zitzaiokeen.

LIKIDAZIOA ETA SARRERA

10. Artikulua- Udalak kontzeptu bakoitzarik dagokion likidazioa egingo du, likidatutako diru kopurua dirutan sartuko delarik ordainarazpen bakoitzaren arau partikularren arabera, dagozkion tarifetan jasotakoak.

TASAREN KUDEAKETA

11. Artikulua- Ordennantza honetan araututako tasaren likidazioa, zergabilketa eta ikuskapenari dagokionez zergei buruzko Foru Arau orokorrean aurrikusitakoa ezarriko da, berdin gertatuko da zerga urratzeak kalifikatzean eta kasu bakoitzean dagozkion zehapenak zehaztean.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Aparkatzea arautzeko udal zerbitzuaren ordenantzako 11.1B artikulua aldatu da. Honela geratuko da hitzez hitz:

11.1.B) 10.1.B) artikuluko kasuetan, eskabidea behar bezala bete behar da, eta ondoko hauek aurkeztu:

-NANaren fotokopia (atzerritarra izanez gero, egoitza txartela edo pasaporte) eta ibilgailuaren zirkulazio baimena.

-Ibilgailuen Ikuskapen Teknikoko Txartelaren fotokopia.

-Ibilgailuaren erabilera zehatza azaltzen duen dokumentuaren fotokopia, ibilgailuaren jabea den pertsona juridikoaren ordezkari kreditatuak sinatuta.

-Ibilgailuaren aseguru polizaren fotokopia. Eskatzailea ohiko gidari gisa ageri behar da bertan. Aseguru konpainiaren ziurtagiria ere onartuko da, bertan eskatzailea ohiko gidaria dela adierazten bada.

2).- Araupeko Aparkalekuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzako 15.1 eta 15.2 artikulua aldatuko dira. Gisa honetan geratuko dira hasierako lerroaldeak:

15.1 artikulua.- 14. Artikuluko a, b, c, d, e, f eta g ataletan tipifikatutakoak arau-hauste astunak dira eta 24,00 €ko isunarekin zehatuak izango dira, eta hala badagokio, txarteletik kenduko dira.

2.- 14. Artikuluko h, i, j, eta k ataletan tipifikatutakoak arau-hauste astunak dira eta 60,00 €ko isunarekin zehatuak izango dira, eta hala badagokio, txarteletik kenduko dira.

3.- Araupeko Aparkalekuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzako 15. artikuluan 3. puntu bat sartu da:

“3. Araupeko Aparkalekuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantza ez betetzeagatik jarritako zehapenak borondatezko epearen barruan ordainduz gero, %50 murriztuko dira.

4).- Araupeko Aparkalekuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzako 14. artikulua aldatu da. Honako lerroaldea gaineratu da:

“Parkimetroak aukera emango du jagoleek jarritako salaketak deuseztatzeko. Baina, beti ere, salaketaren deuseztapena epe zehatz baten barruan egin beharko da eta dagokion ordenantzan zehazten diren zenbatekoak abonatu beharko dira parkimetroan”.

5).- Araupeko Aparkalekuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzako 10. artikulua aldatu da. Gisa honetan geratuko dira hasierako lerroaldeak:

“Ibilgailu baten titularra den egoiliar bakoitzari bereizgarri bat emango zaio, baina, etxebizitza bakoitzean gehienera 2 bereizgarri egongo dira. Gehiengo hori errespetatuta, ibilgailuaren titular den pertsona fisikoak bigarren bereizgarri bat jaso ahal izango du, baina, horretarako, bere jabetzakoa den ibilgailua normalean bere ezkontideak edo izatezko bikoteak edota seme-alabek erabiltzen dutela egiaztatu behar du (eta ez dute beste txartelik izango). Horretarako, ibilgailuaren jabearen etxebizitza berean erroldatua egon behar dute eta bertan bizi. Interesatuek honakoen fotokopiak aurkeztu behar dituzte:

-Ibilgailuaren Zirkulazio Baimena

-Erabiltzailearen NAN-a

-Bigarren ibilgailua normalean bere ezkontideak edota seme-alabak erabiltzen duela eta bizileku berean bizi direla dioen zinpeko aitortpena.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta Eranskina 1999ko irailaren 23an, 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25ean, 2006ko abenduaren 22an, 2007ko apirilaren 27an, -----onetsi dira behin-betiko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta 2008ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean eta indarrean jarraituko dute bere aldarazpena edo indargabetzea erabaki arte.

ERANSKINA

A) EPIGRAFEA: HESIAK, ANDAMIOAK, ZURKAITZAK, ASNILAK ETA GARABIAK.

1.- Lan mota guztietan hesiak.

- m2.ko edo fr. y hileko edo fr. 6,70 euro

2.- Esekitako andamioak, hesi gabe.

- m2.ko edo fr. y hileko edo fr. 6,70 euro

3.- Hesiz kanpoko zurkaitz edo asnilak.
- Bakoitzarengatik hileko edo fr. 6,70 euro

4.- Garabiak
- m2.ko edo fr. y hamabostaldiko edo fr. 3,30 euro

TARIFAREN APLIKAZIO ARAUAK

a) Epigrafe honetan agertzen diren lanak geldituko balira hiru hilabete baino gehiagoko denboraldi batean, bidezkotu gabe, tarifa hau ezartzean sortzen diren zenbatekoak ehuneko ehuneko errenergua izango lukete, eta lanak amaitu eta probetxamenduak jarraitzen badu, zenbatekoak ehuneko berrehuneko errenergatuak izango dira.

b) 100eko 50ean beheratuko dira, hormen errengatze lanak direla eta jarri behar diren hesi eta andamioei dagozkien tarifak, beti ere instalazio denbora ez bada hiru hilabetekoa baino gehiagokoa.

c) Tasa lizentzia ematen den momentuan likidatuko da behin behinean, zerbitzu teknikoek zenbatesten duten denboraren arabera, bere iraupenarena. Behin okupazio bukatuz gero guztizko likidazioa egingo da erabilitako benetako denbora oinarritzat hartuta.

B) EPIGRAFEA: IBILGAILUEN SARRERA FINKEN BARRURA ESPALOIETATIK ZEHAR ETA APARKALEKUA GORDETZEA.

1.- Ibilgailuen pasabidea. Ibilgailuen pasabidea metroko edo frakzioko eta urteko eta frakzioko 33,60 euro

2.- Aparkaleku gordetzea.

a) Gune iraunkorraren gordetzea, metro lineal edo frakzioa eta urtean-
edo frakzioa 72,80 euro

b) Aldizkako gunea gordetzea metro lineal edo frakzioa eta hilea edo
frakzioa 12,40 euro

c) Taxi geltokia, urteko 71,70 euro

TARIFEN APLIKAZIO ARAUAK:

a) Espaloien pausuen zabalera duen jandako zintarriaren metro linealen arabera egingo da, jate hori esistitzen den kasuetan. Espaloiko zinterrria ez balitzateke janda egongo, ezta bera kenduta ere, neurria izango da, bere

osotasunean, kasu bakoitzeko orube edo lokalaren sarreran dagoen baoaren gauzako luzerarena.

b) Instalazio, kontserbazio, erreforma, pasabideen kentzea eta aparkalekuen gordetze gastuak, baita bere seinalizazioarenak ere, eskatzaileen kontu eta kargura izango dira.

c) Ibilgailuen pasabideen konzesionarioak bere seinalizazioa egitera behartuta daude homologatutako plaken instalazioen bidez, Udaletxean hartu behar izango dituztelarik, arinago kopuru hau ordainduz: 16,83 euro.

d) Ibilgailuen iraganbideari dagokionez, tasa behin eta berriz ez ordaintzeak (2 urte edo gehiago) emakida galtzea eragingo du. Horren ondorioz, subjektu pasiboak espaloia beharpena altxa beharko du, eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek marra egokia margotuko dute, bertan aparkatzea ahalbidetzeko xedez.

e) Ordenantza horretan erregulatzen den aprobetxamendua lortu nahi duten norbanako edo erakundeek Udal honetan eskaera aurkeztu behar dute.

Emandako aprobetxamenduek aldakuntza edo bajaren bat izanez gero, dagokion aitorpena aurkeztu beharko dute. Betebehar hori betetzen ez dutenek ordainarazpena ordaindu beharko dute. Erroldako baja eta alden kasuan, kuota egutegiko hilabeteetan zainduko da, alta edo baja gertatu den hilabetea barne. Aitorpen horiek eragina izango dute egiten diren hurrengo urtean.

C) EPIGRAFEA: SALTOKIAK JAIETAN ETA HERRI JAIETAN EDO ALDIZKAKO OKUPATZEA

C-1) Saltokiak jaietan eta herri jaietan:

a.- Tabernak, kafetegiak edo antzekoak jaietan eta herriko jaietan, txoznak izan ezik.

-8 m ² tik, eguneko	60,00 euro
-8 m ² baino gehiago, eguneko	121,00 euro

b.- Kanpoko barrak edo antzeko instalazioak, tabernetan eta, oro har, ostalaritzako lokaletan, udalerriko auzoetako jaietan

Metro lineal eta egun bakoitzeko	20,00 euro
----------------------------------	------------

c.- Txurrotegi edo txokolategi eta masa frijituko mahaiak ferietan eta herri jaietan.

- Eguneko	15,00 euro
-----------	------------

- d.- Saltxitxa, patata frijituak, izozkiak edo antzerakoak karrotxoak, ferietan eta herri jaietan
-Eguneko 8,00 euro
- e.- Opilak, karameluak, gozokiak, fruitu lehorrak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak, saltzeko mahaiak edo etxatoak ferietan eta herri jaietan..
-Eguneko edo frakzioko 10,00 euro
- f.- Talo-txorizo eta bertako produktuentzako saltokiak ferietan eta herri jaietan.
-Eguneko edo frakzioko 30,00 euro
- g.- Tombolak, errifak, salmenta azkarrak eta antzerakoak ferietan eta herri jaietan.
- Eguneko 40,00 euro
- h.- Ikuskizunak, antzokiak eta zirkoak ferietan eta herri jaietan.
- Eguneko 100,00 euro
- i.- Zuri tiraketa, anilak edo bestelako jokuen etxatoak.
-Eguneko 30,00 euro
- j.- Ohe elastikoak, puzteko gazteluak eta antzerakoak, mugimendua duen edozein tresna mota izan ezik, ferietan eta herri jaietan.
-Eguneko 15,00 euro
- k.- Kolunpioak, hegazerako tresnak, zalditxoak jokuak, eta, orokorrean mugimendua duen edozein tresna mota, aurreko ataleetan agertzen diren izan ezik.
- Eguneko 30,00 euro
- l.- Umeen Noria, ferietan eta herri jaietan.
- Eguneko 30,00 euro
- m.- Auto txoke pistak ferietan eta herri jaietan.
- Eguneko 90,00 euro
- n.- Mugimenduko bestelako gailu handiak: helduen noria, trenbide gainean doazenak etab, herri-jaietan
-Eguneko 90,00 euro

C-2) Aldizkako okupatzea. Saltokiak.

- a.- Aldi baterako okupazioko txurrotegi edo txokolategi eta masa frijituko mahaiak.
- Eguneko edo frakzioko 18,00 euro

b.- Opilak, karameluak, gozokiak, fruitu lehorrak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak, saltzeko mahaiak edo etxatoak.	
- Eguneko edo frakzioko	31,40 euro
c.- Lorak, izozkiak eta rosakilak saltzeko mahaiak edo etxatoak.	
- Eguneko edo frakzioko	7,80 euro
d.- Gaztainak saltzeko etxatoak.	
-Aldiko	111,20 euro
e.- Zuri tiraketa, anilak edo bestelako jokuen etxatoak.	
-Eguneko edo frakzioko	44,80 euro
f.- Tombolak, errifak, salmenta azkarrak eta antzerakoak.	
- Eguneko edo frakzioko	78,40 euro
g.- Kolunpioak, hegazerako tresnak, kalesatxoak, zalditxoen jokuak, bumperrak eta, orokorrean migimendua duen edozein tresna mota.	
- Eguneko edo frakzioko	161,20 euro
h.- Auto txoke pistak.	
- Eguneko edo frakzioko	378,60 euro
i.- Ikuskizunak, antzerkiak eta zirkuak, aldi baterako okupazioa.	
- Eguneko edo frakzioko	56,10 euro
j.- Piraguen, pedaflots eta beste batzuen alogera, udaroan	867,50 euro
k.- Bizikleten eta antzekoen alogera, urteko edo frakzioko	867,50 euro
l.- Aisialdirako aparatuak hondartzetan, udaroan	649,00 euro
m.- Irabazizko erakusketa eta mahai informatzaileak (industrial, merkatala edo komertziala) bide publikoan m2ko edo frakzioko eta eguneko edo frakzioko	8,60 euro
n.-Barkiloen salmenta aldiko	111,40 euro

TARIFEN APLIKAZIO ARAUAK

Epigrafe honetan jasotako emakidak, barraken eta/edo feriatako jolas-aparatuen instalazioari buruzkoak, enkante edo hitzarmen sistemaren bidez adjudikatu ahal izango dira eta kasu bakoitzean Udalak erabakitzen duen oinarri eta baldintzetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

Bai enkante-bidezko esleipenetan eta baita baimena hitzarmen-bidez esleitzen den kasuetan ere, epigrafe honetan ezartzen diren zenbatekoak ez diren beste zenbatekoak ezarri ahal izango dira.

D) EPIGRAFEA BAKARREKO ERABILPENA EDO BIDE PUBLIKOETAKO ZORU, HEGALDURA ETA ZORUPEKO PROBETXAMENDU BEREZIA

- 1) Dirua sartuta salmenta automatikoko aparatuak m²/hileko 6,70 euro
- 2) Argazki makina automatikoak, aparatu bakoitzarengatik.m²/hileko 6,70 euro
- 3) Dirua sartutako aparatu bakoitzarengatik, zalditxoak, kotxeak eta beste batzuk/m²/hileko 6,70 euro
- 4) Zine rodajea eta argazki komertzial-publizitarioa. euro/egunek 330,20 euro
- 5 a) Mahaiak, beilariak, aulkiak, m²ko edo frakzioko, eta urteko edo frakzioko:

1. kategoria	50,40 euro
2. kategoria	44,80 euro
3. kategoria	39,20 euro
4. kategoria	30,30 euro
5. kategoria	26,00 euro

Okupazio egoeraren araberako koefiziente:

Gurpildunen zirkulazioa debekatuta dagoen aldean, 1,2
8 metro baino zabalago diren espaloietan, 1,15
Aterpetan 1,15

5b) Babestzaile, metro lineal edo frakzioko eta urte eta frakzioko 4,50 euro

6) Obra-hondakin edo materialak edukitzeko kontenedoreak hamabostaldia kontenedoreko edo frakzioko 72,80 euro

7) Bide publikoan jarritako obra-hondakinen zakuak, hamabostaldi edo frakzioko 36,40 euro

8) Kioskoak, 78,40 euro/m²ko edo frakzioko

Santa Eugenia	326,90 euro
Pedro Bilbao euro/urteko	817,20 euro
Lope de Vega euro/urteko	326,90 euro
Mayor 5,euro/urteko	492,50 euro
Eskoletako Emparantza, euro/urteko	571,00 euro
Fadura euro/urteko	326,90 euro

Avda. Angel/Borobia euro/urteko	408,60 euro
Avda. Angel/La Venta euro/urteko	408,60 euro
Plaza Ganeta euro/urteko	244,00 euro
Serantes euro/urteko	408,60 euro
Lañomendi-Oicosa II	326,90 euro
Mayor 21 euro/urteko	326,90 euro

9) Zoruaren probetxamendua lokalen edo denden barrutik zuzenki bide publikora edozein gai motaren salmentarekin, bide publikoa negozioaren zatibat bezala hartuz, metro linealeko edo frakzioko eta hileko edo frakzioko 13,40 euro

10) Zorupearen probetxamenduagatik gasolina, olio edo antzeko instalazio edo aparatuekin, okupatzen duen zoru guztiagatik, depositoak sartuta, m²ko edo frakzioko, urteko edo fr 168,00 euro

11) Batetik besterako izozkien salmenta urteko edo frakzioko 2.910,50 euro

12) Markesina, Toldo, Letrero eta Eskaparateen okupazio iraunkorragatik m²ko edo frakzioko, urteko edo frakzioko 10,10 euro

13) Bankuen eta finantza-erakundeen kutxazainak, eskaintzen dituzten zerbitzuak edozein direlarik ere, fatxadarekiko lerroan. 934,50 euro urtero

E) EPIGRAFEA BAKARREKO ERABILPENA EDO UDAL BIDE PUBLIKOETAKO ZORU, HEGALDURA ETA ZORUPEKO PROBETXAMENDU BEREZIA, HORNIDURA ZERBITZUEN ENPRESA UZTIATZAILEEN ALDE.

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalaren bide publikoetako lurzoruaren, lurpearen edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziarengatik tasak ondoko enpresetan izango eragina:

- Energia elektrikoa, ura edo gasa hornitzeaz arduratzen diren enpresak.
- Udalaren bide publikoetako lurzoruaren, lurpearen edo hegalkinaren erabilera pribatiboarekin edo aprobetxamendu bereziarekin instalaturiko telekomunikazio sare publikoak jendeak guztiz edo zati batean erabiltzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresak, sare edo instalazioen titularitatea norena den begiratu gabe.
- Gainerako hornidura-enpresak, zerbitzuak emateko udalaren lurzorua, hegalkina edo lurpea okupatzen duten hodi, kable eta gainerako instalazioak erabiltzen dituztenak.
- Era berean, zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen artean zerbitzu horiek banatzeko eta merkaturatzeko enpresak ere sartuko dira.

Tributu-kuota urtebetean udal barrutian lortzen duten fakturaziotik heldu diren diru-sarrera gordinen % 1,5 izango da.

APLIKATZEKO ARAUAK

- 1.- Tasa likidatzeko zerga oinarria hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek urtebetean udal barrutian lortzen duten fakturaziotik heldu diren diru-sarrera gordinen arabera ezarriko da.
- 2.- Diru-sarrera gordinak entitateari egotz dakizkiokeenak dira, enpresak udal barrutian emaniko zerbitzuengatik lortu dituenak.
- 3.- Ez dira diru-sarrera gordintzat hartuko ez emandako zerbitzuak zergapetzen dituzten zeharkako zergak, ez eta hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituen enpresaren diru-sarrera propioa osatzen ez dituzten hirugarrenen kargura kobratutako partidak edo kopuruak ere.
- 4.- Hornidurak emateko besteren sareak erabiltzen dituzten enpresek fakturazioko beren diru-sarrera gordinetatik beste enpresa batzuei beren sareetara konektatzeko ordaindutako kopuruak kenduko dituzte. Sare horien titularrak diruen enpresek kontzeptu hori dela eta jasotako kopuruak fakturazioko diru-sarrera gordinen artean kontatu beharko dituzte.
- 5.- Zergen Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Ikuskaritzako Arautegiko 37. artikuluan ezarritakoaren arabera, sareen titularrak diren enpresek udalak sareetarako konektatzeko sarrera gisa diru-sarrerarik kobratzen dituzten enpresei buruz eskatzen dien informazioa eman beharko dute.

Tasa hori sortuko da aprobetxamendu berezia hasten denean; hortik aurrera, urtero, urtarrilaren 1ean.

Subjektu pasiboari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik jabari publikoaren aprobetxamendua garatzen ez denean, bidezkoa izango da kasuan kasuko zenbatekoa itzultzea.

Hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, hiruhileko bakoitzeko lehen hamabost egunetan, udaletxean aurreko hiruhilekoan lorturiko diru-sarrera gordinak jasoko dituen deklarazioa aurkeztu beharko dute. Deklarazio horrekin batera, udal barrutian eginiko fakturazioa kreditatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, bai eta kasuan kasu udal administrazioak eskatzen duena ere.

-Udal administrazioak kasuan kasuko hiruhilekoko likidazioak egingo ditu; likidazio horiek behin-behinekoak izango dira, harik eta behar diren egiaztapenak egiten diren arte. Behin egiaztapen horiek egin direnean, behin betiko likidazioa egingo da, eta likidazio hori interesdunari jakinaraziko zaio. Borondatezko epea iraganik, zorra premiamenduzko bidetik exijituko da.

-Betiere, behin-behineko likidazioak behin betikotzat joko dira aurreko artikulua aipatzen duen deklarazioa aurkezten den egunetik hiru urte iragan direnean.

-Tributu arloko arau-hausteei eta haiei buruzko kalifikazioei dagokien guztian, bai eta ezar daitezkeen zehapenei dagokien guztian ere, Zergen Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

F) EPIGRAFEA TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ESTAZIONAMENDUA UDAL BIDE PUBLIKOETAN.

APARKATZEKO ORDU TXARTELAREN TARIFA OROKORRA

- 1) Estazionamendu 30 minuto barne 0,25 euro
- 2) 30 minututik eta 60 arte, 0,01333 euro/minutu, 0,05 eur.ko multiploetan ordu bat izanik 0,65 euro
- 3) 60 minututik aurrera eta 90 arte, 0,02000 euro/minutua, 0,05 euroko multiploetan ordu t'erdia izanik 1,25 euro
- 4) 90 minututik aurrera eta 270 arte, 0,02555 euro/minutua, 0,05 euroko multiploetan, lau ordu t'erdia izanik 5,85 euro .

Egoiliarrentzako aparkatzeko baimen txartela, ibilgailu bakoitzeko, urteko kuota 48,15 euro.

Egoiliarra dela azaltzen duen txartelaren ordezkapenarengatik, ibilgailuz aldatzeagatik, eta beste motibu batzurengatik 4,50 euro.

TARIFEN APLIKAZIO ARAUAK

a) Epigrafe honetan araututako tasaren ordainketa egitera ez dira behartuak egongo ondorengo ibilgailuak:

- Parabrisaren barnealdean, kanpotik ondo ikusteko moduan, "Ibilgailu egoiliarrentzat bereizgarria" eramaten dutenak, aparkatzen den lekuan baliogarria dena.
- Parabrisaren barnealdean, kanpotik ondo ikusteko moduan, "Abereizgarria berezia" eramaten dutenak, aparkatzen den lekuan baliogarria dena.
- Motozikletak, zikloak, ziklomotoreak eta bizikletak.

b) Tasa hau ordaintzera behartuak daude:

1.- Behartu printzipalen kalitatean:

- Ibilgailuen gidariak ondoren aurrikusten den kasuan izan ezik.

- Ibilgailuen jabeak, prezioak aldizka sortzen direnean, egutegiko urtearekin bat etorriz.

2.- Behartu solidario bezala, ibilgailuaren jabea. Ondore hauetarako eta arinagokoaren 1goan aurrikusitakoarekin, ibilgailuaren jabetzat joko da, Zirkulazio Baimenean titular bezala agertzen dena.

c) KOB RATZEKO ERA

1.- TAOko Erroldan alta ematen den kasuetan, tasa hori txartelak eta aparkaleku baimenak erabili baino lehen aurreiazko izaerarekin kobratuko dira, autolikidazio bidez.

2.- Gainerako kasuetan, borondatezko epean, sarrera sartzeko epea Getxoko Udaleko Kudeaketa, Ikuskapen eta Diru-Bilketaren Ordenantza Fiskalean garatutako egutegi fiskalean ezarriko da urtero.

3.-Egoiliar Txartelaren altak edo baxak eman ezker, kuoten kobratzea edo itzultzea , egutegiko hiruhilabetekoetan zatikatuko da.

d) PREMIAMENDU PROZEDURA

Tasa hauengatik eta bere kompetentzietan ezarritako zehapenengatik sortutako zorrak, aparkaleku eta trafiko ordenazioari eta erregulazioari buruzko Udal Arauaren arabera, premiamendu prozeduraren bitartez eskatu ahal izango dira.

e) Abenduan udalak zergadunei Aparkaleku Txartela bidaliko die eta baita 2007an indarrean egongo den eransgailua ere. Txartela erabili nahi ez duenak, Udaletxera itzuliko du.

G) EPIGRAFEA ZANGAK ETA MEA-AZTERGUNEAK

Zangak eta Mea-azterguneak irekitzeagatik m²/hileko 34,70 euro.